

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 21ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2024-2025 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi mailako ikasketa batzuk egiteko bekak ebazten dituen.

2024ko uztailaren 4ko aginduaren bidez (2024ko uztailaren 17ko EHAA), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2024-2025eko ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2024ko azaroaren 6an 1. ebazpen-proposamena argitaratu eta jakinarazi ondoren, beka orokorrari buruzko 1. ebazpena argitaratu da honako pertsona hauentzat: proposamena onartu dutenak, alegaziorik aurkeztu ez dutenak, eta alegazioak aurkeztu eta ebazita daudenak.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozedurako gainontzeko arauak bete ondoren

EBAZTEN DUT

1.- 2024-2025 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi mailako ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei 1. ebazpena jakinaraztea. Eranskinean zerrendatzen dira emandako eta ukatutako eskabideak. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpenaren xehetasunak.

2.- Eranskinean emandako beka-eskabideak dituzten eskatzaileei dagokien zenbatekoa ordaintzea.

3.- Eranskinean agertzen diren eskatzaileei jakinaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioketela Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari. Errekurtoa aurkezteko epea hilabetekoa da, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 21a.

Sara Urionabarrenetxea Zabalandikoetxea
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria